

## **DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2014**

### **OGASUNA ETA FINANTZAK**

1. Konekta Zaitetz@Banda Zabala proiektuaren barruan banda zabaleko Interneten sartzeko 2014ko ekitaldiko diru-laguntzak.

1.- Izenburua

**Konekta Zaitetz@Banda Zabala proiektuaren barruan banda zabaleko Interneten sartzeko 2014ko ekitaldiko diru-laguntzak.**

2.- Araua

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko uztailaren 11ko Aginduaren bitartez gauzatu zen. Agindu hori Justiziako eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko otsailaren 18ko Aginduak aldatu zuen.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadi Informazio Gizartearen Planaren barruan, Eusko Jaurlaritzak, 2004ko maiatzaren 11n eginiko bileran, Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan banda zabalerako azpiegiturak hedatzeko den Konekta Zaitetz@Banda Zabala proiektua onartzeko erabakia hartu zuen.

Diru-laguntza programaren helburua hauxe da: horrelako telekomunikazio-azpiegiturez hornitzea halakorik ez duten Euskal Autonomia Erkidegoko aldeak. Horrela, herritar guztiei Interneten sartzeko aukera eman nahi zaie, baita horri esker haustura digitala izenaz ezagutzen duguna kentzen lagundu ere. Halaber, Konekta Zaitetz@Banda Zabala proiektuaren helburu diren aldean konektibitatea operadore pribatuen eskaintzaren bitartez konponduta duten aldeetako baldintza berdintsuak izatea ahalbideratuko da.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Konekta Zaitetz @ Banda Zabala izeneko egitasmoaren barruan, banda zabaleko Interneten sartzeko diru-laguntzen zenbatekoa 2014ko ekitaldirako 111.000 eurokoa izan da

2014an diru-laguntzak eman zaizkie banda zabaleko terminal-ekipoak erabili dituzten 271 onuradunei, 281 euroko unitatearen kostuarekin, guztira, 76.151 euro.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko hiritar gehienek Interneterako sarbidea dute, desiratutakoari jarraiki gizartean eragite lortu da diru-laguntzen ezarpenen bidez.